


BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Euskaraz egindako publizitatearen erronka

"Fanderiko pentsuak, ez merkeenak, bai onenak" iragarkia irratian entzuten zenetik publizitateak bide luzea egin du. Merkatu-ekonomiaren zutabe garrantzitsua bihurtu da, milioiak erabiltzen dira horretan, hizkuntza berezia garatu du, istorio ikusgarri bezain harrigarriak ikus daitezke... baina euskarak apenas eman du aurrerapausorik publizitategintzan: ETB-1ek eta *Euskaldunon Egunkariak* gaztelaniazko iragarkiak onartu behar izaten dituzte, publizitatearen diru iturriak behar-beharrezkoak dituzte eta. Publizitate-agentziek, bestalde, ez dute gehienetan

sortzaile euskaldunik. Euskarazko iragarki gehienak, hortaz, itzulpenak dira. Ondo egindakoak zenbaitetan eta erdarazkoen kalko hutsak nahi baino sarriago. Azken aldi honetan, ordea, geroz eta gehiago dira publizitatea euskaraz ere egiten duten enpresak, denda handietatik hasi eta kale kantoiko kafetegiarekin amaitu. Publizitatearekiko kezka, bestalde, zabalduz doa geure artean, *Publizkuntza 91* ihardunaldiak lekuko. Euskararen normalizazioak euskara publizitategintzan ere erabiltzea esan nahi du. Tajuz, bizitasunez eta ondo erabilitako euskara, ez merkeena, bai onena.



Ikasmaterialgintza erreforman

Euskararen Aholku Batzordeak, irakaskuntzaren erreforma dela eta, euskarazko ikasmaterialgintzaren geroaz dituen kezkak azaldu dizkio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari *Irakaskuntzaren Erreforma eta Ikasmateriala* txostenaren aurkezpena eginez.

Irakaskuntzaren erreforman ikasmaterialgintzak, irakasleen prestakuntzarekin batera, izango duen garrantziaz jabeturik, etorkizunean gai honen inguruan sor daitezkeen arazoak aurikusi nahi izan ditu Euskararen Aholku Batzordeak. Honetarako, material desberdinen tipologia zehaztu, aurrerantzean izan beharreko ezaugarriak zerrendatu, arazoa bere luze-zabalean kokatu eta dagoeneko atzeman daitezkeen hutsuneak azaldu ditu, ondoren zenbait konponbide aipatuz.

Erreformaren metodologia kontutan hartzen bada, hutsune nabarmenak gerta daitezke zenbait arlotan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (12-16 urte), esaterako, kontsulta liburuak, hiztegiak, entziklopediak, informatikazko materialak euskaraz eman beharko zaizkio euskaraz ikasten duen gazteari. Horrelako lan batzuk argialetxeek berez egingo ez dituztenez gero, ezinbestekoa da, batzordearen iritziz, erabakiak hartu, aurrekontuak bideratu eta plangintzari ekitea.



Gotzon Egia, belaunaldi berriaren naturaltasuna

Gotzon Egia, 34, Euskararen Aholku Batzordeko kiderik gazteena da. Trintxerpen jaioa, Donostian bizi da emaztea eta hiru seme-alabekin.

Euskaltasuna naturaltasunez bizi izan du haurtzarotik hasita. Familia euskaltzalekoa, etxean *Zeruko Argia* eta euskal liburuak hartzen zituzten. Aitak Pasaiako ikastolaren sorreran esku hartu zuen.

Ikastolan hain Gotzon Egia zuzen ere ikasi zituen lehen hiru urteak. Filologia

Hispanikoa egin zuen Deustuan eta EUTGn. Ikasketak egin bitartean ilazki euskaltegian irakatsi zuen lau urtez. Gipuzkoako Foru Aldundian dihardu azken urteetan. Euskararen Normalkuntzarako, Zuzendaritza Nagusiko

Hizkuntza Normalkuntzarako Ataleko arduraduna da. Bertan boletinaren itzulpenaz arduratzen dira, kanpora

bidali beharreko dokumentazioaren euskaratzeaz eta Foru Aldundiko hizkuntza eskakizunen gestioaz.

Hilean birritan Gasteizera joaten da EHUK antolatu duen Itzulpengintza Masterrean eskolak ematera. Ez du bere burua itzultzailetzat jotzen, baina gustatzen zaio.

EEan sartzea mesedegarria izan beharko litzatekeela



Gotzon Egia

dio euskara-gaztelania dikotomia apurtzeko. Informatikari esker ere, erakunde desberdinetako itzultzaileen arteko bateratze lana hobetu egin delakoan dago.

Donostiako *Bagera* elkarteak kidea da.

Euskalterm finalista

UZEIk sortutako *Euskalterm* (kontsultarako terminologiazko datu bankua) programa finalista atera zen "originaltasuna" sailen Espainiako Telefónica konpainiak banatu zituen 1992ko Ibertex Sarietan.

*Euskalterm*en kontsulta egiteko Ibertex (Telefónica-rena) edo Spritel (Sprirena) telematika sareak erabili behar dira. Ordenadorea izanez-gero modema eta honentzako programa nahikoa dira, bestela, bideotex terminal bat eta, noski, UZEIk emandako pasa hitza edo kodea.

Erabiltzaileak 160.000 fitxa aurkituko ditu, hiru modutan eta lau hizkuntzatan emanak.

*Euskalterm*en bezero gehienak administrazioak (HAEE-IVAPen diru laguntzak jasotzen dituzte tresneria ezartzeko), EHUKoak eta itzultzaileak dira. Urtean 7.000 kontsulta izaten ditu.

"Arabako euskara, lehengo eta oraingo bizia" erakusketa ari da prestatzen Arabako Foru Aldundiaren Kultura Saila. Arabako euskararen iraganaren eta orainaren berri ematea du helburu. Oholak, bideoak, ikus-entzunezkoak, ordenadoreak eta erakuslehoak erabiliko dira. Gasteizen aurkeztu ondoren, Arabako hainbat herritara eramateko asmoa dago.

Nafarroako zazpi sindikatuk (CCOO, CGT, ELA, ESK-CUIS, LAB, UGT eta USO) 47,6 milioi pezetako partida sortzea eskatu diete alderdi parlamentariari lan munduan eta enpresan euskara sartu eta sustatu ahal izateko. Sindikatuen ustez lan konbenioak egiteko orduan erraztasun handiagoak eskatuko dituzte langileek euskara ikas dezaten. 91n eta 92an 119 eta 150 langile ari izan ziren euskara ikasten.

Trebiñoko konterrian euskara ikasten ari dira 49 gazte. Arabako Foru Aldundiarekin duten hitzarmena medio, hiru irakaslek astean hiru egunetan irakasten dute euskara Trebiño herrian. Lapuebla de Arganzonen, ostera, bi egunetan joaten da irakaslea hamabost ikasleri euskara irakastera. Arabako Foru Aldundiak dioenez, Trebiño Arabako beste herrien neurri berean ari da euskalduntzen.

Donostiako Industri Ingeniaritza Teknikorako Unibertsitate Eskolan asignatura gehiago ikasi ahal izango dira euskaraz ikasturtearen bigarren atal honetan: Dibujo Tekniko nahiz Industrial, Mekanika, Elektronika, Elektrizitatea, Zirkuitoak eta Jariakinak ikasi ahal izango dituzte euskaraz 2., 3. eta 4. mailako berariazko arloetan. Lehen mailan gai guztiak euskaraz ere irakasten dira.

Nekazaritza arloko oinarritzko hiztegia

Nekazaritza munduan eguneroko beharrei erantzuteko oinarritzko hiztegitxo egingo duen lantaldea osatu berri da.

Asmo hau Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak lan munduko hiru sektoreetan euskararen erabilera areagotzeko darabilen plangintza orokorraren barruan sartzen da. Izan ere, Euskararen Aholku Batzordearen lan munduko txostenak eskualderik euskaldunenetan ezartzen zituen lehentasunak.

Txostenean esaten zenez, euskaldungoaren enborra eta euskara erabiltzeko tradizioa ere nekazaritza eta arrantza arloetan egon baita. Nekazaritzaren esparruan badaude dagoeneko zenbait programa martxan. Hauen baitan kokatzen da oinarritzko lexikoaren normalizazio lana.

Eratu den lantalde honek kontutan izango ditu besteek aurretik esparru horretan egin

duen bilketa lana, hala nola, UZEIk Juan Garmendiak, Jose Mari Satrustegik, Gerardo Lopez de Gereñuk, Mikel Sarriegik etabarrek.

Lantaldea erakunde hauetako ordezkariak osatzen dute: Eusko Jaurlaritza eta hiru foru aldundietako nekazaritza sailak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, Euskaltzaindia, UZEI, Elhuyar, Fraisoro eskola eta Hizkuntza Politikarako

Idazkaritza Nagusia. Lan honek duen garrantziagatik beraritzko deia egin zaie Nafarroako Gobernuari zein Euskal Kultur Erakundeari, beste hainbat arlotan egin den bezala, hemen ere elkar lanean aritzeko.

Lehen fasean lantalde honek nekazaritza munduko terminologiaren arlorik nagusienak landuko lituzke. Urte honen amaierarako amaituko da.



Ikasmaterial idatzien bilduma

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuak ikasmaterial idatzien laugarren bilduma argitaratu du. EAEko ikastetxe guztiei oinarritzko informazioa eskuratu nahi die: irakasmaita eta jakintzagai bakoitzerako zer material dagoen aukeran, zenbatean, egileak eta argitaratzaileak nor diren, etab.



Igone Etxebarria, 30, bediatarra, EITBko euskara arduraduna izendatu dute. Euskal Filologia Deustuko Unibertsitatean ikasitakoa, zenbait urtez Labayru Ikastegian egin du lan, literaturan batipat. ETBko kanpoko produkzioaren hizkuntza kontrola eraman du hiru urtez.

Edorta Gonzalez, 30, biologo eta irakasle bilbotarrak *Irudia: argazkilaritza eta bideogintza* liburua eman du argitarara. OHOKo 8. mailan, UBIIn eta Lanbide Heziketan irakasten duten irakasleentzat da egina. Bilboko Urretxindorra ikastolan egiten du lan. Zientzia-fikziozko liburu bat ere idatzi du.

Josu Landa, Venezuelan jaiotako idazle mexikarrak *Falasha* poema liburua argitaratu du Mexikoko Euskal Etxean gaztelaniaz eta euskaraz. Lehen lana ere, *Los Tankas de Arropain* hizkuntza bietan eman zuen. Landak euskara du ama hizkuntza.

✂

EUSKARAREN BERRIPAPERA ZURE etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia Wellingtono Dukea, 2 01011 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gazteleraz

Izen-deiturak:.....

.....

Helbidea:.....

.....

Herria:.....

Kodea:.....

Lurraldea:.....

Tel.:

Galdezka

Helburuak

G. Esango al diguzu zeintzuk diren hizkuntza politikaren helburuak?

E. Zer lortu nahi dugun? Bi belaunalditan, gehienez jota hirutan, herritarrak bi hizkuntzetako edozeinetan komunikatzeko gai izatea, bakoitzak nahi duena aukeratu ahal izan dezan. Horixe da nahi duguna.

Ez da helburu makala, ez horixe. Baina lortu, lor daiteke; eta bat dator herri honetako jendearen iritzi eta gogo-asmorekin.

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak 1991n egindako galdeketa soziolinguistikoaren arabera biztanlego osoaren %16 baino ez da euskararekiko interesik ez eta aurkako jarrera duena. Era berean, 10 herritarretik 9k Herri Administrazioak euskararen erabilera sustatu behar duela uste du. Badakigu bide zuzenetik ezezik gehiengoak nahi duenetik goazela; horrexegatik eusten diegu tinko eta sendo gure helburuei. Dena den, baliabideak jartzeko orduan malgutasunez eta praktikotasunari begira jokatzeko dugu. Guretzat lehen lehena belaunaldi berrien hezkuntza da eta, horrekin batera, belaunaldi berriengan sortzen diren aurrerakuntza guztiak gizarte bizitzan, baita administrazioan ere, txertatzea.

M. Karmen Garmendia.

Hizkuntza Politikarako
idazkari nagusia

Elebitasunari bai Ipar Euskal Herrian

Ipar Euskal Herriko Ikas Bi elkarteak eskolameen gurasoen artean egin duen galdeketa arabera gehienek begi onez ikusten dituzte elebitasuna eta euskararen irakaskuntza eskolan.

Galdeketa orokorrean elebitasunaren eta bereziki euskararen irakaskuntzaren aurrean gurasoek dituzten motiboak eta kezkek hobeto ezagutzeko egin da, 1993ko otsailaren 1etik 12ra bitartean.

- Elebitasunari dagokionez, galdetuen %90ek uste du frantsesarekin batera bigarren hizkuntza bat ikastea oso ona dela umearentzat. Zergatik? Umeak azkarrago eta hobeto asimilatzen duelako.
- Euskara eskoletan irakasteari buruz, ordea, onespena (%63) ez da hain handia, baina

garrantzitsua hala ere. Zergatik? Bertako hizkuntza delako eta tradizioei eutsi behar zaielako.

- Euskara goiz ikasten hasteko eskaera oso kontutan hartzekoa da: %34,5ek euren umeek euskara eskolan ikas dezaten nahi du. Nafarroa Beherean igo egiten da proportzio hau: %44. Gaur egun ume guztien %10,5ek baino ez dute aukera hori. Inkestaren arabera, eskaintza hori %40-45era igo beharko litzateke dagoen eskaerari era egokian erantzuteko.
- Hizkuntzaren testuinguruari dagokionez, gurasoen %58 bideetako seinaleak hizkuntza bietan jartzearen alde daude. Bestalde, %71ek ez luke nahi izango dokumentazioa hizkuntza bietan idazteko aukera.

✓ Kontutan hartzeko

- **Expolingua Madrilén,** apirilaren 22tik 25era, Chamartin tren geltokian. Eusko Jaurlaritzako HPIN eta Nafarroako Gobernuak HPZN elkarrekin izango dira.

- **Galizia, Katalunia eta Euskal Herriko literaturak** gaineko VI. Ihardunaldi Unibertsitariak egingo dira Madrilén, Complutensek eta UNEDek eratuta. Apirilaren 21ean

Miren Azkaratek hitz egingo du, 22an Ana Toledok eta Julen Arexola-Leibak. Faxa: (91) 394 58 35.

- **5. Haur literatura lehiaketa.** SM argitaletxearen Bapore Sailak antolatuta. 1. sariak milioi bat pta. jasoko du, 2.ak 200.000 pta. Tfnoa.: (94) 671 17 54.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜÍSTICA